

**EUSKALTZAINDIAREN
ETA KARMEL ALDIZKARIAREN ARTEKO
LANKIDETZA-HITZARMENA**

Euskaltzaindia azken aldi honetan hitzarmenak egiten ari da tresna informatiko berriek eskaintzen dituzten aukerak baliatuz hogeigarren mendeko bigarren aldian euskaraz burutu-tako produkzioa eskuratu eta lexiko alorreko ikerketa-lanetan erabiltzeko asmoz.

Egia esan, lexiko alorrean izugarriko altxorra dugu bilduta ibilbidea luzea egin duten aldizkari eta argitalpen-sortetan batez ere. Guzti hori bildu nahi du Euskaltzaindiak *'Lexikoaren Bebatokian'* euskara batua euskalki guztietako ur gardenez elikatu nahian.

Dagoeneko eskuratuak ditu *Anaitasuna, Jakin, Auzpoa, Herria* eta abarretan ageri den lexiko-multzo ugaria. Berdintsu jokatu nahi izan du lankidetzan KARMEL aldizkariarekin ere. Hainbeste urtetan zehar –1931ean hasi eta, etenak eten, gaur arte)– hainbeste idazlek erabilitako euskara eskuratu nahi izan du, euskara baturako datu-base erraldoian sartzeko. Guztira 289 zenbakitan argitaratutako multzo handia dugu. Aldizkari-ko lanez gainera KARMEL SORTA ere erabili ahal izango du Euskaltzaindiak bere ikerketa-lanetarako.

Gogoratu beharra dago beren beregi oso interesgarriak izan ohi dira aldizkarietan argitaratzen diren testuak, era guztietakoak izateaz gainera, hainbatean jendeak eguneroko bizitzan erabili ohi duen euskararen isla izaten direlako.

Mende-erdi luze bateko testigantza eskaintzen digute. Zenbait idazlek, adibidez Aita Akesolo Olivares jakintsuak, bere jakituria aldizkari honetan eskaintzen digu bereziki. Gaien aberastasunak eta jendearekiko hurbiltasunak balio gehigarria ematen diote bertan ageri den produkzio opa-roari.

KARMEL aldizkariaren kasuan, gainera, bide aparta dugu halako materiala euskara batuko altxortegira eramatea, bertan ageri direlako hogeigarren mendeko bizkaierazko idazlerik onenetarikoak: a) zaharren artean: Lino Akesolo Olivarez, Santi Onaindia Baseta, Valentín Aurre-Appraiz, Jose Antonio Gorria Muniozguren, Nikolas Batiz Bilbao, Domingo Agirre (Aita Luki), Sabin Muniategi Astorkia, Eusebio Erkiaga Alastrera, Lorentzo Arteaga Bilbao, Pedro Ormaetxea Aldana, Pedro Pujana Agirregabiria, Martin Uriarte Odriozola, Agustin Zubikarai Bedialauneta, Paulin Solozabal Solozabal eta beste hainbat. b) bizi diren idazleen artean: Luis Baraizarra Txertidi, Patxi Uribarren Leturiaga, Julen Urkiza Txakartegi, Andoni Olea Agirregomezkorta, Luis Arostegi Ganboa, Juan Luis Goikoetxea Arrieta, Ana Urkiza Ibaibarriaga, Miren Agur Meabe Plaza, Andres Urrutia Badiola, Lorentzo Zugazaga Martikorena, Xabier Kaltzakorta, Anttonmari Aldekoa-Otalora, Iñaki Sarriugarte Irigoien... c) bizkaieraren eremutik kanpoko idazle on ugari ere bai: Karmelo Zubizarreta Arrizabalaga (zuzendari izandakoa), Gotzon Garate Gohartzun, Angel Bidaguren Arrien, Andoni Karmelo Urrestarazu Landazabal, Joakin Aldabe Juanikotena, Anastasio Arrinda Albizu, Mikel Arruza Egia, Jose Antonio Arze, Juan Mari Arriabalaga Alberdi, Joseba Aurkenerena Barandiaran... (Bibliografia osoa: Karmel, 163. alea. 2008-3).

Gorago esan den bezala, KARMEL aldizkarian ageri diren lanez gainera, *KARMEL-SORTA* ere kontuan izango denez, material-kopuru ugaria eskuratuko du Euskaltzaindiak bere ikerketetan, Euskal Herri osoaren onerako erabiltzeko. Karmel

aldizkariko idazleek aho batez onartu zuten 2014ko bilera orokorrean euren lanak euskararen onerako Euskaltzaindiak *'Lexikoaren Behatokian'* ikerketarako eta lexikoa aberasteko erabiltzea.

Hurrengo hau da bi erakundeen artean eginiko hitzarmena.

* * *





Bilbon, 2014ko uztailak 10

BILDU DIRA

Alde batetik, JULEN URKITZA TXAKARTEGI jauna, Karmeldarren Nafarroako San Joakin Probintziako KARMEL aldizkariaren (R-4800385 IFK zenbakia) zuzendaria, eta bestetik,

ANDRES URRUTIA jauna, Euskaltzaindiaren euskaltzainburua.

AZALTZEN DUTE

Lehenengoa.- Euskaltzaindia Euskal Herri osoko erakundea da, 1918. urtean sortua, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Aldundien ekimenez. Erakunde horren helburu nagusiak dira, hain zuzen ere, euskara ikertzea, arautzea eta haren erabilera sustatzea.

Bigarrena.- Hego Euskal Herrian, otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretuak Euskararen Errege Akademia gisa aitortpen ofiziala eman zion erakunde horri; harrezkero, Euskaltzaindia da euskararen arloko erakunde eskuduna, hizkuntza bera ikertu eta babesteko. Ipar Euskal Herrian, Euskaltzaindiak onura publikoko aitormena du, 1995. urteko otsailaren 20ko dekretuaren arabera.

1979ko Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatuak eta Nafarroako Foru Erkidegoko 18/1986 Euskarari buruzko Foru Legeak beren-beregi aitortu dute Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofiziala dela, euskarari dagokionez. Harrezkero, 272/2000 otsailaren 25eko Errege Dekretuaren bidez aldatu eta eguneratu dira Euskaltzaindiaren estatuak.

Hirugarrena.- KARMEL historia luzeko aldizkaria da. *Karmengo Argia* (1931-1936) aldizkari herrikoia 1951-1956 urteetan *Egutegi* bezala agertu zen eta, berriro, aldizkari bezala (bihilabetekaria), 1957-1961 aldian. Nolanahi ere, Gobernuak debekatu egin zuen 1961. urtean. *KARMEL*-en hirugarren aroa 1970ean hasi zen eta gaur arte jarraitzen du, gizatasunaren eta euskal kulturaren zerbitzuan.

Laugarrena.- Euskaltzaindiak eta KARMEL aldizkariak, bakoitzak bere aldetik, egiten dituzten hainbat jarduera lankidetzan garatzeko borondatea agertzen dute.

Horiek horrela izanik, euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean Euskaltzaindia zein KARMEL aldizkariaren helburuak betetzeko xedearekin, bakoitzaren prozedura-arauak onartuz, ondokoa

HITZARTZEN DUTE

Lehenengoa.- KARMEL aldizkariak aitortzen du, euskaraz denaz bezainbatean, Euskaltzaindia dela erakunde aholku-emaile ofiziala.

Bigarrena.- Euskaltzaindiak aitortzen du, KARMEL aldizkariak urteetan egin duen lana, bereziki, euskararen jakitearen, sentiberatzearen, zabalkundearen eta erabileraren eremuan egiten diharduena.

Hirugarrena.- Euskaltzaindiaren eta KARMEL aldizkariaren arteko elkarlana euskararen normalizaziorako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatuko da, euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean batez ere.

Laugarrena.- Egitasmo hauetan Euskaltzaindiak euskararen arloan ezarritako arauak eta proposaturiko gomendioak zabaltzeko konpromisoa hartzen dute bi erakundeok.

Bosgarrena.- KARMEL aldizkariak Euskaltzaindiari egingo dizkio gramatika, lexiko, ortografia, onomastika eta euskalkien erabileraren inguruko kontsultak eta iradokizunak, eta Euskaltzaindiak kontsulta horiei erantzuna eman edota bideratuko ditu. Bi aldeek finkatuko dituzte kontsulta horiek egiteko mekanismoak. Nolanahi ere, halakoetan teknologia berrien erabilera sustatuko da, ikusgarritasuna eta erabiltzaile potentzialeri erraztasunak emateko.

Seigarrena.- Era berean, aipatutako arloetan sortzen diren hutsune eta beharrak jaso eta Euskaltzaindiari jakinarazteko konpromisoa hartzen du KARMEL-ek.

Zazpigarrena.- Euskaltzaindiak eta KARMEL-ek publikatzen dituzten argitalpenak elkarren artean trukatzeko konpromisoa hartzen dute. Era berean, bi sinatzaileen artean argitalpen-egitasmoak partekatuko dituzte. Adostutako argitalpen-egitasmo bakoitzean finkatuko dira xehetasunak, finantzaketa-bideak barne.

Zortzigarrena.- Euskaltzaindiak eta KARMEL-ek euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean egitasmoak partekatzeko konpromisoa hartzen dute. Urteko jarduketa-planean zehaztuko dituzte bi erakundeek eremu honetan garabidean jarriko dituzten egitasmoak, finantzaketa-bideak barne.

Bederatzigarrena.- Euskaltzaindiak egoitza nahiz azpiegitura erabiltzeko aukera eskaintzen dio KARMEL-i, adosten dituzten ekintzetan baliatzeko. Adostutako ekintza hauetaz ahalik eta zabalkunderik handiena egiten ahaleginduko dira, bereziki hedabideetan zein teknologia berrien erabileraren bidez. Egoitzen eta azpiegitura honen erabilera diru-ordainik gabea izango da.

Hamargarrena.- KARMEL-ek Euskaltzaindiaren egoitzan antolatzen dituen ekintzetan baliatzen dituen euskarrietan, egoitzaren jabea laguntzailea dela jasoko du era agerian.

Hamaikagarrena.- Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia izeneko egitasmoa elikatzeko asmoz, KARMEL-ek argitaraturikoaren euskarazko testu-multzoaz, baliatzeko adostasuna erakusten dute, I. eranskinean agertu baldintzen arabera.

Hamabigarrena.- Aipatutakoak betetzeko, Euskaltzaindiak KARMEL-ek Batzorde teknikoa osatuko dute; batzorde horrek erakunde bakoitzeko bina kide izango ditu. Batzorde teknikoa urtean birritan bilduko da, gutxienez; hasieran, urteko plangintza planifikatzeko; eta amaieran, urteko balantzea egiteko. Behar izanez gero, Batzorde teknikoak bestelako bilerarik ere egin dezake; horretarako nahikoa izango da aldeetako batek eskatzea.

Hamahirugarrena.- Batzorde teknikoak horrela erabakita, elkarlaneko beste egitasmo batzuk adostu ditzakete erakundeok Hitzarmen honen babesean.

Hamalauugarrena.- Hitzarmen honek hiru urteko iraupena izango du. Iraupen bereko ondoko epealdietan luzatu ahal izango da hitzarmena, baldin eta erakunde sinatzaileetako batek ez badu berau salatzen, indarrean dagoen hitzarmena bukatu baino hiru hilabete lehenago.

Hitzarmen honen testua irakurri ondoren, behean sinatzen dutenak testuarekin ados daudenez gero, goian jasotako tokian, egunean eta lekuan sinatu egiten dute, bikoiztuta, eurek ordezkatzeko dituzten erakundeen izenean.

ANDRES URRUTIA,
euskaltzainburua

JULEN URKIZA,
zuzendaria

I. ERANSKINA:

Egitasmoaren helburua: Lexikoaren Behatokia egitasmoaren xedea corpus monitore bat, lematizatua, etiketatua eta linguistikoki anotatua prestatzea da.

Egitasmoaren garatzaileak: Euskaltzaindia, UZEI, Elhuyar eta Ixa (EHU-UPV).

Lexikoaren Behatokia: hainbat hedabidek euskaraz ekoitziriko berriak (ahoz nahiz idatziz) irensten ditu, corpusaren oinarria bihurtuz. Horiek horrela, KARMEL-ek sorturiko euskarazko testu-masa osoa baliatuko litzateke, egun dagoen corpora aberastuz.

1. KARMEL-en euskarazko corpora jasotzeko baldintzak:
2. KARMEL-ek duen euskarazko testu-masa osoa Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko du, baita kontratu honek indarrean dirauen bitartean sortuko dena ere. KARMEL Aldizkarian argitaraturiko testu-masa erauziko da lehenbiziko. Horren ondoren, euskarazko gainerako argitalpenak erauziko dira.
3. KARMEL-en testu-masa Lexikoaren Behatokian eta Hiztegi Batuan egin behar diren azterlanak egiteko erabiliko du Euskaltzaindiak, ez beste ezertarako.
4. Euskaltzaindiak aurreko puntuan aipatutakoaz gaineko erabilerarik egin nahiko balu KARMEL-en testu-masarekin, honen baimena eta onespren idatzia beharko ditu nahitaez.
5. KARMEL-ek ez dio dirurik kobratuko Euskaltzaindiari testu-masa erabiltzeagatik, kontratu honetan zehazten den erabilerarako den neurrian.
6. KARMEL-ek emaniko testu-masatik abiatuz nolabaiteko ustiapen ekonomikoa egitekotan (izan argitalpen, zerbitzu emate edo bestelako edozein eratako diru-sarre-

rak sor ditzakeen ekimena), KARMEL-en baimena ezinbestekoa izango da. Era berean, KARMEL-ek ustiapen horretan parte hartuko du (bere bidez edo bera ordezkatzuko duen beste enpresa edo erakunde baten bidez), non eta ez dion uko egiten aukera horri.

7. Lexikoaren Behatokia proiektutik erator daitekeen edozein eratako lanak KARMEL-en eskura jartzeko konpromisoa hartzen du Euskaltzaindiak, horrexegatik KARMEL-ek ordaindu beharrik izan gabe.
8. KARMEL-ek proiektuko partaide izateko aukera izango du, bere momentuan hala erabakiko balu.
9. KARMEL-ek HTML formatuan -ahal dela-, eta bestela, bi alderdietako teknikariek adosten duten formatuan eskuratu dio testu-masa Euskaltzaindiari. Hori guztia, lan-kidetza-hitzarmen hau sinatu eta bi hilabeteko epean, eta hortik aurrerakoa, aldeek erabakitzen duten eran.

